

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak. 2025eko abendua

Nabarmentzekoak

2025 urtea

Urte arteko bilakaera: Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,9 egin dute gora.

Sektoreak: *Elikadura* sektorean urte arteko bilakaera % 0,7koa da eta *Gainerako produktuak* sektorean % 1,4koa.

Lurralde historikoak: Araban ez da aldaketarik egon, Bizkaian urte arteko bilakaera % 1,5koa izan da eta Gipuzkoan % 0,3koa.

Enplegua: langile okupatuak % 1,1 gehitu dira.

2025eko abendua

Urte arteko bilakaera: Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,6 hazi dira.

Hileko bilakaera: Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % -0,4 egin dute behera azaroarekin alderatuta.

Sektoreak: *Elikadura* sektorean urte arteko bilakaera % 2,7koa da eta *Gainerako produktuak* sektorean % 2,6koa.

Lurralde historikoak: Araban urte arteko bilakaera % 0,9 izan da, Bizkaian % 3,3 eta Gipuzkoan % 2,2.

Enplegua: langile okupatuak % 1,0 gutxitu dira 2024ko abenduaren aldean.

Azerketa estatistikoa

2025. urte osoan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 0,9ko hazkunde metatua izan dute, Eustatek landutako datuen arabera. *Elikagaien* sektorearen kasuan, salmentak % 0,7 igo dira aurreko urtearen aldean, eta *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, % 1,4.


Urtean zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan: Bizkaian salmentak % 1,5 gehitu dira 2024. urtearen aldean, eta % 0,3 Gipuzkoan. Araban, berriz, salmentak berdin mantendu dira.

Sektoreko landunen indizeak % 1,1ko hazkunde metatua izan du 2025ean.

2025eko abenduan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 2,6 handitu dira aurreko urteko hil beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

Aurreko hilabetearekin (2025eko azaroa) alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 0,4 jaitsi dira, dagozkien urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteetan



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmenten urtez urteko bilakaera positiboa izan da bai *Elikadura* sektorean, bai *Gainerako produktuak* sektorean. Igoera % 2,7koa eta % 2,6koa izan da hurrenez hurren, 2024ko abenduarekin alderatuta.

Hilabete arteko datuei dagokienez (2025eko abendua 2025eko azaroarekiko), joera goranzkoa izan da *Elikagaiak* sektorean (% 0,2ko igoerarekin). *Gainerako produktuak* sektorean, aldiz, % 1,4ko jaitsiera egon da.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Abendua 2025

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,6	-0,4	0,9
Araba/Álava	0,9	0,1	0,0
Bizkaia	3,3	-0,6	1,5
Gipuzkoa	2,2	0,0	0,3
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	2,7	0,2	0,7
Gainerako produktuak	2,6	-1,4	1,4
Enplegu-indizea			
Euskal AE	-1,0	-0,5	1,1

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2026ko Urtarrilaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 3,3 igo dira Bizkaian, % 2,2 Gipuzkoan eta % 0,9 Araban.

Hil arteko datuei dagokienez, salmentek % 0,1 egin dute gora Araban. Gipuzkoan ez da aldketarik egon, eta Bizkaian % 0,6ko jaitsiera egon da.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile okupatuen** kopurua % 1,0 jaitsi da 2024ko abenduarekin alderatuta. Hilabete arteko datuei dagokienez, langileen indizeak % 0,5 egin du behera.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatu dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilaren indizea kalkulatu da laginaren **% 100,00 kontuan izanik**.

Informazio gehiago:

- Taula estatistikoak: [\[ikus\]](#)
- Datu bankua: [\[ikus\]](#)
- Grafikoak eta bistaratzeak: [\[ikus\]](#)
- Metodologia: [\[ikus\]](#)
- Definizioak: [\[ikus\]](#)
- Kodeak eta nomenklaturak: [\[ikus\]](#)
- Egutegia: [\[ikus\]](#)
- Aurreko prensa-oharrak: [\[ikus\]](#)